



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Iceland Dance Company Arriaga Antzokira iritsiko da Romeo ♥ Juliet dantza ikuskizun ikaragarri ederrarekin

- Shakespearearen lana abiapuntutzat hartuta, Erna Ómarsdóttir eta Halla Ólafsdóttir koreografoen Romeo ♥ Julietek dantza garaikidea, arte bisuala eta Prokofieven musika uztartzen ditu.
- Arriaga Antzokiak ikuskizunaren bi emanaldi eskainiko ditu, maiatzaren 20an, ostiralean, 19:30ean eta 21ean, larunbatean, ordu erdi lehenago, 19:00etan.

Bilbo, 2022ko maiatzaren 16a. Islandiako dantza konpainia Arriaga antzokian izango da berriro, izenburu karismatiko bat interpretatzeko: Romeo ♥ Juliet. Shakespearearen lana abiapuntutzat hartuta, Erna Ómarsdóttir-en eta Halla Ólafsdóttir-en Romeo ♥ Juliet txundigarri honek dantza garaikidea, arte bisuala eta Prokofieven musikaren edertasun berezia uztartzen ditu. Lanak jatorrizko historia deseraiki eta aldi bereko narrazio-sare bat sortzen du, herri-kulturaren erreferentziak eta balletaren lengoaia uztartuta. Eraitza itzelezko amesgaiztoa da; odolez, maitasunez, ballet-exorzismoz, suz, dantzaz eta heriotzaz betetako mundu abstraktu bat, azken eraitza gisa ikuskizun liluragarri bat duena, ikuslea harrapatzen duena. Romeo ♥ Juliet kontzientziaren hondarretan irristatzen da. Itsasorantz igotzen den ibai odoltsu bat bezala.

Ikusleek ikuskizun ikusgarri bat bizi ahal izango dute, dantza eta gorputz-adierazpena baliatzen dituen emozio handiak eta gertaera izugarriak modu bikainean transmititzeko. Obra ahaltsua eta bortitza da eta, aldi berean, delikatu eta ederra. Izan ere, pieza honek, balleteko konposizioen eta sarritan erradikalak diren irudien bidez, hainbat generoren muinaren istorio bat kontatzen die ikusleei, elkarren arteko erakarpenarena, baina baita elkarren arteko etengabeko gatazkarena ere. Eta ekintza guztia oso ondo definitutako agertoki batean garatzen da, bat datorren argiztapen-lanarekin. Jantzi deigarriek, bideo lan harrigarriak eta Sergei Prokofieven musika ahaztezinak osatzen dute puzzlea, inor bere horretan utziko ez duen emanaldia eraikitzeko.

Romeo ♥ Juliet, Erna Ómarsdóttir eta Halla Ólafsdóttir zuzendarien koreografia duen dantza-lan ezaguna, Municheko Staatstheater am Gärtnerplatz Balleteko dantzariekin elkarlanean sortu zen berez, eta 2018ko udazkenean estreinatu zen. Pieza hau Alemaniako Antzoki Elkarteak (Deutscher Bühnenverein) 2019ko FAUST sarietarako izendatu zuen, urteko koreografia onenaren atalean.

Orain, lana garatu, egokitu eta birsortu egin da Iceland Dance Companyko dantzariekin, zeinen birtuosismo eta indarra aski ezagunak baitira Bilboko publikoarentzat. Gogoan izan behar dugu Erna Ómarsdóttir sortzaile ospetsuak

zuzendutako konpainia aurretik ere egona dela Arriaga Antzokiko agertokian, bitan zehazki, 2018an *Black Marrow* —mundu industrializatuari buruzko ballet-errituala— antzezteko eta 2019an *The best of darkness* —giza gorputzaren iluntasunean eta zaugarritasunean inspiratutako lana— antzezteko. Asteburu honetan (ostirala 20, 19:30ean eta larunbata 21, 19:00etan), Romeo ♥ Juliet titulu garrantzitsua bere egiteko duten modua ikusteko aukera izango dugu.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 18 eta 42 euro artean (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Iceland Dance Company: Romeo ♥ Juliet

Zuzendari artistikoak eta koreografoak: **Erna Ómarsdóttir & Halla Ólafsdóttir**

Musika: **Sergei Prokófiev & Skúli Sverrisson (Watching Water)**
Prokófiev: **London Symphony Orkestraren grabaketa, André Previnen**
zuzendaritza musikalarekin

Eszenografia: **Chrisander Brun**
Jantziak: **Karen Briem & Sunneva Ása Weishappel**
Bideoa: **Valdimir Jóhannsson, Erna Ómarsdóttir & Hall Ólafsdóttirekin**
lankidetzan
Argiztapena: **Fjölur Gislason**

Dantzariak: **Ásgeir Helgi Magnússon, Charmene Pang, Emilía Benedikta Gísladóttir, Erna Gunnarsdóttir, Félix Urbina Alexandre, Saga Sigurðardóttir, Shota Inoue, Sigurður Andrean Sigurgeirsson, Una Björg Bjarnadóttir & Védís Kjartansdóttir.**

Informazio gehiago:
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus